**1. KUDEAKETA, BILKETA ETA IKUSKARITZAKO UDAL ORDENANTZA.**
**I.-XEDAPEN OROKORRAK**

**I.- PRINTZIPIO OROKORRAK**

1. artikulua. Ordenantzaren xedea

1. Ordenantza honen helburua da Balmasedako Udalari dagozkion zuzenbide publikoko zerga eta diru-sarrerekin zerikusia duten kudeaketa, diru-bilketa, zehapena eta ikuskaritzako prozedurak arautzea.

2. artikulua. Lege araubidea

1. Zuzenbide publikoko zergen eta gainerako diru-sarreren kudeaketa, diru-bilketa, zehapena eta ikuskaritza arautuko ditu Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak, Toki-ogasunen Foru Arauan eta zerga bakoitzaren Ordenantza Fiskaletan aurreikusitako espezialitateekin, eta Udal Ordenantza honek.

2. Bertan aurreikusita ez dagoenetan, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren garapenean emandako legezko xedapenak aplikatuko dira osagarri bezala.

3. artikulua. Aplikazio eremua

1. Udal honek bere eskumenak beteko ditu, Ordenantza honek arautatako gaiei dagokienean, Balmaseda udalerri osoan.

2. Udalerritik kanpo egin behar diren baina berari dagozkion Zuzenbide Publikoko diru-sarrerekin zerikusia duten jarduketak, ikuskaritza edo nahitaezko diru-bilketa arloan, Udal honek burutu ahal izango ditu Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremu barruan. Gainerako kasuetan, ezarrita dauden edo ezar daitezkeen lankidetza bideen arabera egingo dira.

4. artikulua. Organo diru-biltzailea

1. Diru-bilketaren arloan eskumena duten organoak zehazteko asmoz, honakoak dira baliokideak:

**1. ORDENANZA FISCAL GENERAL DE GESTIÓN, RECAUDACIÓN E INSPECCIÓN**
**I.-DISPOSICIONES DE CARÁCTER GENERAL**

**1.- PRINCIPIOS GENERALES**

Artículo 1. Objeto de la Ordenanza

1. El objeto de esta Ordenanza es la regulación de los procedimientos de gestión, recaudación, sanción e inspección relacionados con los tributos y demás ingresos de derecho público, correspondientes al Ayuntamiento de Balmaseda.

Artículo 2. Régimen Legal

1. La gestión, recaudación, sanción e inspección de los tributos y demás ingresos de derecho público se regirá por la Norma Foral General Tributaria, con las especialidades previstas en la Norma Foral de Haciendas Locales, las Ordenanzas Fiscales de cada tributo y por la presente Ordenanza Municipal.
2. En todo lo no previsto en ella, se aplicarán con carácter supletorio las disposiciones legales dictadas en desarrollo de la Norma Foral General Tributaria.

Artículo 3. Ámbito de Aplicación

1. Este Ayuntamiento ejercerá sus competencias, en las materias reguladas por esta Ordenanza, en todo el término municipal de Balmaseda.
2. Las actuaciones en materia de inspección o recaudación ejecutiva que hayan de efectuarse fuera del territorio del municipio en relación con los ingresos de Derecho Público propios de éste, podrán ser practicadas por este Ayuntamiento en el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia. En los restantes supuestos, se realizarán de acuerdo con las fórmulas de colaboración establecidas o que pudieran establecerse.

Artículo 4. Órgano recaudador

1. Al objeto de determinar los órganos competentes en materia de recaudación, se realizarán las siguientes equivalencias:

- Foru Maila…………………………………….Udal Maila
- Foru Ogasuna:…………………….……..........Toki Ogasuna
- Ogasun eta Finantzako Diputatua:…………….Alkatea
- Diruzaina:………………………………………..Diruzaina
- Foru erakunde autonomoak …Tokiko erakunde autonomoak
- Foru Aldundia:…………………………………..Udala

- Ámbito Foral:……………………….........Ámbito Local
- Hacienda Foral:…………………………..Hacienda Local
- Diputado Hacienda y Finanzas:…………Alcalde
- Tesorero:………………………………….Tesorero
- OO.AA Forales: …………….…............OO.AA Municipales
- Diputación Foral: …………………………Ayuntamiento

5. artikulua. Kudeaketa

1. Balmasedako Udalak onura fiskalak eman ditzake bere zergen arloetan, aurrekontuetan bere gain hartuz, dagozkion Foru Arauetan xedatutakoaren arabera.

2. Aldizka ordaindu beharreko zergak direnean, onura fiskalak ondoreak sortuko ditu eskabidea aurkeztu zuen zergaldiaren hurrengoan.

3. Gainerako tributuetan, zerga-aitorpena egiteko ezarri den epea bukatuta aurkezten bada eskabidea, onurak ez ditu hartuko aitorpena aurkeztu den egunaren aurretik sortutako kuotak.

Artículo 5. Gestión

1. El Ayuntamiento de Balmaseda podrá conceder beneficios fiscales en materia de sus propios tributos, asumiéndolos con cargo a sus propios presupuestos, de conformidad a lo dispuesto en las Normas Forales correspondientes.

2. En el caso de los tributos periódicos, el otorgamiento del beneficio fiscal surtirá efecto desde el periodo tributario siguiente a aquél en el que se presentó la solicitud.

3. En el resto de tributos, si la solicitud del beneficio es posterior al término establecido para la declaración tributaria, el beneficio no alcanzará a las cuotas devengadas con anterioridad a la fecha en que se presente la declaración.

6. artikulua. Errolda

1. Zerga-egitateak jarraipena duenean errolda egin behar izango da, interesdunen aitorpenak, Udal honek dituen datuak eta ikuskapenak kontuan izanda.

2. Altak, bajak edo aldaketak, sortarazi dituen egitatea izan den ondoko 15 egun balioduneko epean jakinarazi beharko dira. Bajak aurkeztu diren epealdiaren hurrengotik aurrera izango dituzte ondorioak, ordenantza bakoitzean ezartzen diren salbuespenak kontuan izanda.

3. Alkatetzak onespena eman beharko die erroldei ekitaldi bakoitzean eta jendaurrean jarriko dira ikusgai 15 eguneko epean, dagokien zergadunak aztertu eta, hala behar denean, bidezko

Artículo 6. Padrón

1. Cuando el hecho imponible tenga carácter de continuidad, dará lugar a la creación de un padrón en vista de las declaraciones de los interesados, de los datos de que este Ayuntamiento tenga conocimiento, así como de las inspecciones.

2. Las altas, bajas o modificaciones deberán ser notificadas en el plazo de 15 días hábiles siguientes al hecho que las produzca. Las bajas surtirán efecto a partir del periodo siguiente a aquel en que hubieran sido presentadas, salvo las excepciones que se establezcan en cada ordenanza.

3. Los padrones se someterán en cada ejercicio a la aprobación de la Alcaldía y se expondrán al público por un plazo de 15 días al objeto de que los contribuyentes afectados puedan

erreklamazioak egin ditzaten. Gainera, dagokien Foru Arau eta zuzenbide publikoko sarrerak arautzen dituen berariazko ordenantzetan aurreikusitakoa ere betearaziko da

4. Udalak, erroldarekin batera, borondatezko epealdian diru-sarrera egiteko epea jakinaraziko du. Epe hori amaituta, diru-kopurua osorik ordaindu ez bada, epealdi betearazlea hasiko da.

5. Kobrantzako iragarkiak ondokoa izan behar du:

- Diru-sarrera egin behar den epea.
- Baimena duten kobratzeko mota desberdinak.
- Diru-sarrera egiteko leku eta ardua.
- Diru-sarrera egiteko epea amaituta, dirua ordaindu gabe balego, zorrak premiamenduko prozeduraz eskatuko dira, betearazpen epealdiari dagozkion gainordainak, berandutza interesak eta, behar denean, sortuko dituzten kostuak barne.
- Helbideratutako ordainagiriak kobratuko diren data.
- Kobratzeko epealdi horretan banku-helbideraketek ondorioak izateko azken mugaeguna.

<u>7. artikulua. Kobrantzarako egutegia</u>

1. Udalak egutegi orokor hau ezartzen du, aldian aldiko diru-sarrera publikoak egiteko:

- Ondasun higiezinen gaineko zerga: BFAk ezarritakoa.
- Ekonomi jardueren gaineko zerga: BFAk ezarritakoa.
- Zaborrak lehenengo hiruhilekoa, apirilaren 10etik maiatzaren 10era. 2.hiruhilekoa, uztailaren 10etik abuztuaren 10era. 3.hiruhilekoa, urriaren 10etik urriaren 10era. 4. hiruhilekoa, urtarrilaren 10etik otsailaren 10era.
- Beste zergak eta tasak: Maiatzaren 2tik uztailaren 1tara.

2. Salbuespen gisa, alkateak epe ezberdinak ezar ditzake aparteko kasuetarako.

examinarlos y establecer, en su caso, las reclamaciones oportunas. Todo ello sin perjuicio de lo que las Normas Forales correspondientes y las ordenanzas específicas reguladoras de los ingresos de derecho público prevean al efecto.

4. El Ayuntamiento, junto con el padrón, anunciará el plazo para el ingreso en periodo voluntario. Transcurrido éste sin que se haya efectuado el pago se iniciará el periodo ejecutivo.

5. El anuncio de cobranza deberá contener:

- El plazo en que se ha debe realizar el ingreso.
- Las diferentes modalidades de cobro autorizadas.
- Lugares, días y horas de ingreso.
- La advertencia de que, transcurrido el plazo de ingreso sin haberse efectuado el mismo, las deudas serán exigidas por el procedimiento de apremio y se devengarán los correspondientes recargos del periodo ejecutivo, intereses de demora y, en su caso, las costas que se produzcan.
- La fecha de cobro de los recibos domiciliados.
- Fecha límite para que las domiciliaciones bancarias surtan efectos en dicho periodo de cobro.

<u>Artículo 7. Calendario para el cobro</u>

1. Con carácter general se establece este calendario, para el cobro de aquellos ingresos periódicos de carácter público.

- Impuesto de Bienes Inmuebles: el previsto por la DFB.
- Impuesto de Actividades Económicas: el previsto por DFB.
- Basuras: Primer trimestre, desde el día 10 de abril hasta el 10 de mayo. Segundo trimestre desde el día 10 de julio hasta el 10 de agosto. Tercer trimestre desde el día 10 de octubre hasta el 10 de noviembre. Cuarto trimestre desde el día 10 de enero hasta el 10 de febrero.
- Otras tasas e impuestos municipales: Entre el 2 de mayo y el 1 de julio.

2. Por circunstancias excepcionales el Alcalde podrá establecer plazos diferentes a los establecidos en el punto anterior.

balmaseda
AyuntamientoUdala

## II.- ZORRAREN IRAUNGIPENA

### 1.-ORDAINKETA

8. artikulua. Ordainketa egiteko legitimazioa

1. Ordainketa edozein zergadunek egin dezake, baita hirugarrenek ere zorra iraungiteko ondorio guztiekin. Hala ere, horrek ez die hirugarren horiei Udalaren aurrean inongo eskubiderik egikaritzeko ahalmenik ematen.

9. artikulua. Tokia eta epea

1. Ordainketa esku-dirutan egin daiteke, kasuaren arabera:
   - Diru-bilketako udal bulegoan.
   - Kreditu erakunde laguntzaileetan.
   - Kutxa zerbitzua ematen duten erakundeetan.
   - Ordenantza fiskal bakoitzean ezarritako moduan.

2. Salbuespen gisa, Udalak borondatezko epean edota betearazpen epean espezietan ordaintzea onar dezake, edozein ondasun edo eskubide emanez, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergabilketari buruzko Araudia onartzen duen abenduaren 27ko 215/2005 Foru Dekretuaren 17. artikuluak ezarritakoarekin bat.

3. Ordaintzeko epea hauxe izango da:
   - Autokitapenak: Zerga bakoitzaren arauetan ezarritakoa.
   - Administrazioak eginiko likidazioetarako, eta ordainketa geroratu edo zatikatzeko eskubide bat ukatzeagatik, interesdunak eskatutakoa konpentsatzeagatik eta zorren ordainetan edo zerga-bilketa prozeduraren etendura kasuetan ondasunak edo eskubideak emateagatik eska daitezkeen likidazioen kasuan hilabeteko epea egongo da, betiere jakinarazpen datatik aurrera zenbatuta.
   - Aldizkako jakinarazpen kolektiboak: ordenantza honen 7. artikuluan ezarritakoa.
   - Ordainketa efektu tinbredunekin: zerga-egitatea egiten den unean.

## II.- EXTINCIÓN DE LA DEUDA

### 1.-PAGO

Artículo 8. Legitimación para efectuar el pago

1. El pago puede realizarse por cualquiera de los obligados y también por terceras personas con plenos efectos extintivos de la deuda, sin que ello faculte a los terceros para ejercer ningún derecho ante el Ayuntamiento.

Artículo 9. Lugar y momento

1. El pago deberá hacerse en efectivo, según los casos:
   - En la oficina de recaudación municipal.
   - En las entidades de crédito colaboradoras.
   - En las entidades que presten el servicio de caja.
   - De la forma prevista en cada ordenanza fiscal.

2. Excepcionalmente el Ayuntamiento podrá admitir el pago en especie en periodo ejecutivo, mediante la entrega de cualquier bien o derecho, tal y como dispone el artículo 17 del Decreto Foral 215/2005 de 27 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Bizkaia.

3. El plazo para el pago será el siguiente:
   - Para las Autoliquidaciones: el establecido en las Ordenanzas de cada tributo.
   - Para las liquidaciones practicadas por la administración y las exigibles como consecuencia de la denegación de una solicitud de aplazamiento o fraccionamiento de pago, de compensación a instancia de parte, de dación de bienes o derechos en pago de deuda o de suspensión del procedimiento recaudatorio: un mes.
   - Las notificaciones periódicas de notificación colectiva: el establecido en el artículo 7 de esta ordenanza.
   - El pago hecho con efectos timbrados: en el momento de la realización del hecho imponible.

10. artikulua. Ordaintzeko erak

1. Zerga eta gainontzeko diru-sarrera publikoen bilketa honela egin behar dira:
- Borondatezko ordainketan: horretarako ezarritako epeetan.
- Betearazpen epean: premiamenduzko bidean.

2. Betearazpen epean ordainketa bilketa bulegoan egin behar da, oro har, baina interesdunak eskatuz gero, Udalak baimentzen duen beste edozein bide erabiliz egin daiteke.

Artículo 10. Forma de pago

1. La recaudación de los tributos y demás ingresos de derecho público se realizará:
- En periodo voluntario, en los plazos señalados al efecto.
- En periodo ejecutivo, por la vía de apremio.

2. El pago en periodo ejecutivo, con carácter general, se realizará en la Oficina de recaudación, si bien se podrá realizar, a solicitud del interesado por cualquier otra forma autorizada por el Ayuntamiento.

11. artikulua. Ordaintzeko erak

1. Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergabilketari buruzko Araudia onartzen duen abenduaren 27ko 215/2005 Foru Dekretuaren 17. artikuluak ezartzen dituen ordainketa bideak onartzen ditu.
Dena dela, alkateak ordainketarako beste bide batzuk onar ditzake.

2. Banku helbideratzea:
- Aldez aurretik udal administrazioari eskatu behar zaio.
- Zerga bat, batzuk edo denak helbideratu daitezke.
- Ordainagiriak kontuan zordunduko dira iragarkian edo kitapenean ezartzen den egunean. Data zehaztu ezean, ordainagiriak borondatezko epearen azken egunean zordunduko dira.
- Ordainagiriak itzuliko balira eta borondatezko epealdi barruan ordaindu ezean, dirubilketa betearazleari hasiera emango zaio.
- Ordaintzeko helbideraketek baliozkotasuna izango dute mugaegunik gabe, baina zergadunek edozein unetan, berariaz, ezeztu edo beste establezimendu batzuetara lekualdatu ahal dituzte, Udal Administrazioari baliozko epearen barruan jakinaraziz.
- Udalak helbideratzea ezereztatu ahal du, ordainagiriak itzuliz gero edo helbideraketako kontuan saldorik egon ezean.

3. Banku transferentzia bidez egin nahi zianez gero, jakinarazpenean ordainketa bide baimendu gisa agertu behar da, eta bertan zehaztuta egon

Artículo 11. Medios de pago

1. El Ayuntamiento de Balmaseda admitirá como medio de pago los reconocidos en el Reglamento General de Recaudación aprobado por Decreto Foral 215/2005 de 27 de diciembre.
El Alcalde podrá autorizar otros medios de pago diferentes.

2. La domiciliación bancaria:
- Se solicitará previamente a la Administración Municipal.
- Podrá domiciliarse, uno, varios, o la totalidad de los tributos.
- Los recibos serán cargados en cuenta el día que se establezca en el anuncio o en la liquidación. A falta de determinación, los recibos serán cargados el día que finalice el plazo de pago voluntario.
- En el caso de devolución de recibos, si este no es abonado dentro del periodo voluntario, se iniciará la recaudación ejecutiva.
- Las domiciliaciones de pago tendrán validez por tiempo indefinido, pudiendo los contribuyentes en cualquier momento, de forma expresa, anularlas o trasladarlas a otros establecimientos, poniéndolo en conocimiento de la Administración Municipal dentro del plazo de validez.
- El Ayuntamiento podrá revocar la domiciliación ante la devolución de recibos o por falta de saldo en la cuenta domiciliada.

3. Para poder hacer el pago mediante transferencia bancaria, esta tendrá que ser autorizada como medio de pago en la notificación,

behar dira kontuaren zenbakia, zenbatekoa, transferentzia egiteko epea eta zorduntzeko kontuan agertu behar den kontzeptua.

4. Txekeaz ordaintzen bada, baldintza hauek bete behar ditu:

- Udalaren izenean egotea.
- Ematen den egunaren aurreko datakoa izatea.
- Erakundeak adostuta egotea.
- Igorlearen izena edo sozietatearen izena agertzea.

Zorra txeke bidez ordaintzek ondoreak izango ditu txekea ematen den egunean bertan. Txekeak ondorio guztiak edo batzuk sortu ezean, premiamenduzko bidetik joko da.

5. Zorra ordaintzen duenak eskubidea du ordainketaren egiaztagiria jasotzeko.

**2.-GERORAPENA ETA ZATIKAPENA**

<u>13. artikulua. Gerorapena eta Zatikapena:</u>

1. Alkateak, zerga behartuak hala eskatuta, zorren ordainketa geroratu edo zatikatu ahal izango du zordunaren egoera ekonomiko eta finantzarioak, Udalak zuhurtziarakotasunez aintzat hartuta, ordainketa egitea eragozten badio aldi baterako.
2. Eskabidearen edukia abenduaren 27ko 215/2005 Foru Dekretuak onetsi zuen Zerga Bilketari buruzko Araudi Orokorrean ezarrita dagoena izango da.
3. Gerorapena edo zatikapena borondatezko aldian nahiz aldi exekutiboan onartu ahal izango da.
4. 150 eurotik beherako zorrak ezingo dira geroratu eta ezta zatikatu ere.

5. Ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko gehienezko epea 24 hilabetekoa izango da.
6. Ezohiko kasuetan eta xede horretarako emandako ebazpenaren bidez bakarrik onartuko da 4. puntuan adierazitako zenbatekoa baino txikiagoa den zor bat geroratzea edo zatikatzea, edota 5. puntuan adierazitako epea luzatzea.
7. Ordainketak geroratzeko eta zatikatzeko irizpide orokorrak, borondatezko aldian zein aldi exekutiboan, hauek izango dira:

especificando la misma, el número de cuenta, el importe, el plazo para realizar dicha transferencia y el concepto a establecer como anotación al hacer el cargo en cuenta.

4. Cuando el pago se realice mediante cheque este deberá reunir los siguientes requisitos:

- Ser nominativo a favor del Ayuntamiento.
- Con fecha anterior a la entrega.
- Estar conformado por la entidad.
- Nombre o razón social del librador.

El pago de la deuda con cheque es efectiva el día que se hace efectivo teniendo efectos desde el día de la entrega. Cuando el cheque no se pueda hacer efectivo en todo o en parte, se acudirá al procedimiento de apremio.

5. El que pague una deuda tendrá derecho a justificante del pago realizado.

**2.-APLAZAMIENTO Y FRACCIONAMIENTO**

<u>Artículo 13. Aplazamiento y Fraccionamiento</u>

1. El Alcalde previa solicitud del obligado, podrá aplazar o fraccionar el pago de las deudas cuando la situación económico-financiera, discrecionalmente apreciada impida de forma transitoria efectuar el pago.
2. El contenido de la solicitud será el establecido en el Reglamento General de recaudación aprobado por Decreto Foral 215/2005 de 27 de diciembre.
3. El aplazamiento o fraccionamiento podrán concederse tanto en periodo voluntario como en periodo ejecutivo.
4. No se concederán aplazamiento ni fraccionamientos para deudas de importe inferior a 150€ .
5. El Plazo máximo por el cual se concederá dichos aplazamiento o fraccionamiento será de 24 meses.
6. Sólo excepcionalmente y mediante resolución al efecto se concederán aplazamientos o fraccionamientos de importe inferior al establecida al apartado 4º o por periodo más largo que el establecido en el apartado 5º.
7. Los criterios generales de aplazamiento y fraccionamiento, tanto en periodo voluntario como ejecutiva, serán los siguientes:

800 eurotik beherako zorrak:

**Gerorapena:**

150 eta 300 € bitartean................................................ hilabete 1

301 eta 500 € bitartean................................................ 2 hilabete

501 eta 800 € bitartean................................................ 3 hilabete

**Zatikapena:** ez da egokia

800 eurotik gorako zorrak:

**Gerorapena:**

800 eta 3000 € bitartean............................................. 6 hilabete

3001 eta 12000 € bitartean......................................... 12 hilabete

12001 eta 24000 € bitartean...................................... 18 hilabete

24001 eurotik aurreta.................................................. 24 hilabete

**Zatikapena:**

800 eta 3000 € bitartean............................................. 6 hilabete

3001 eta 12000 € bitartean......................................... 12 hilabete

12001 eta 24000 € bitartean...................................... 18 hilabete

24001 eurotik aurreta.................................................. 24 hilabete

8. Ordainketak geroratu edo zatikatu ahal izateko, nahitaezkoa da eskatzaileak geroratu edo zatikatutako zorren ordainketa helbideratzea.

9. Zordunak aldi exekutiboan ordaintzeke dituen eta geroratuta edo zatikatuta ez dauden zorren guztizkoa geroratu edo zatikatu beharko da, salbuespenik gabe.

10. Ezohiko kasuetan edo interes publikoko arrazoiengatik, ezohiko gerorapenak edo zatikapenak onartuko dira.

11. Oro har, gerorapenentzat ez da bermerik eskatuko zor den guztizko zenbatekoa 6.000 eurotik beherakoa denean.

Para deudas no superiores a 800,00 €:

**Aplazamiento:**

De 150 a 300€ ...................................................................... 1 mes

De 301 a 500€................................................................. 2 meses

De 501 a 800€ ................................................................. 3 meses

**Fraccionamiento:** no cabe fraccionar deudas inferiores a 800,00 €

Para deudas superiores a 800 €:

**Aplazamiento:**

Más de 800 a 3.000€ .................................................... 6 meses

Desde 3001 a 12.000€ .................................................. 12 meses

Desde 12.001 a 24.000€ .............................................. 18 meses

A partir de los 24.001€ ................................................. 24 meses

**Fraccionamiento:**

Más de 800 a 3.000€ .................................................... 6 meses

Desde 3001 a 12.000€ .................................................. 12 meses

Desde 12.001 a 24.000€ .............................................. 18 meses

A partir de los 24.001€ ................................................. 24 meses

8. La concesión de aplazamiento o fraccionamiento requiere que el solicitante domicilie el pago de las deudas, aplazadas o fraccionadas.

9. No se tramitaran fraccionamientos ni aplazamientos si no es por el total de las deudas que el deudor mantenga en periodo ejecutivo y no estén aplazadas o fraccionadas, sin excepción.

10. Como consecuencia de circunstancias excepcionales o razones de interés público, se podrán conceder aplazamientos o fraccionamientos excepcionales.

11. Con carácter general no se exigirá al deudor la prestación de garantías para el aplazamiento de deudas cuando el importe total pendiente no supere los 6.000€.

12. Ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskariari uko egiten bazaio, berandutzako interesak likidatuko dira borondatezko aldia amaitzen den unetik ebazpen ukatzailea ematen edo ordainketa gauzatzen den unera arte igarotako denboragatik.

13. Geroratutako zenbatekoa ez ordaintzeak alde exekutiboaren hasiera ekarriko du ordaintzeke dagoen guztia kobratzeko.

14. Berandutza interesik ez da eskatuko ordainketa berandutzeko edo zatitzeko borondateko epean eskatzen denean, baldin eta aldizkako mugaeguneko eta jakinarazpen kolektiboko zorrak badira eta zor horien ordainketa osoa sortu ziren urte berean egiten bada.

14. artikulua. Berandutza interesak

1. Berandutza interesak zergadunei eta subjektu arau-hausleei eskatuko zaizkie honako arrazoiengatik:

- Epe barruan ez ordaintzea.
- Diru-itzulketa bidegabe kobratzea.
- Zorren ordainketa geroratu edo zatikatzea.
- Zerga-araudian eta indarrean dauden aurrekontuko xedapenetan aurreikusitako gainerako kasuak.

2. Berandutza interesa, diruari buruz legeak agintzen duena izango da, eska daitkeen epealdian zehar, gehi % 25, bestelakorik ezarri ezean. Zerga arlokoak ez diren zorrei diruaren legezko interes-tasa ezarri beharko zaie.

**3.-HUTSEGINAK ETA KREDITU KOBRAEZINAK**

15. artikulua.- Hutseginak

1. Hutseginak dira, zorra ordaindu ezin duten zergadunak, frogatutako kaudimengabeak izateagatik.

16. artikulua.- Kreditu kobraezinak

1. Zordun nagusia eta arduradun solidario eta subsidiario guztiak, hutseginak jo ondoren, kreditua kobraezintzat joko da.

12. En los casos de denegación de aplazamiento o fraccionamiento se liquidarán intereses de demora por el período transcurrido desde la terminación del plazo de ingreso en período voluntario, hasta la fecha de la resolución denegatoria o del pago efectivo.

13. La falta de ingreso de la cantidad aplazada determinará la exigibilidad en vía ejecutiva del total de la deuda pendiente.

14. No se exigirá interés de demora en los acuerdos de aplazamiento o fraccionamiento que hayan sido solicitados en período voluntario y se refieran a deudas de vencimiento periódico y notificación colectiva y que el pago total de las mismas se produzca en el mismo ejercicio que el de su devengo.

Artículo 14. Interés de demora

1. El interés de demora se exigirá a los obligados y a los sujetos infractores como consecuencia de:

- Falta de pago dentro del plazo.
- El cobro de una devolución improcedente.
- Aplazamiento o Fraccionamiento del pago de deudas.
- El resto de casos previstos en la normativa tributaria y disposiciones presupuestarias vigentes.

2. El interés de demora será el interés legal del dinero, durante el periodo en que aquel resulte exigible, incrementado en un 25%, salvo que se establezca otro diferente. A las deudas de carácter no tributario, le será de aplicación el interés legal del dinero.

**3.-FALLIDOS Y CRÉDITOS INCOBRABLES**

Artículo 15. Fallidos

1. Son fallidos los obligados al pago cuya deuda no puede hacerse efectiva por insolvencia probada de los mismos.

Artículo 16. Créditos incobrables

1. Declarados fallidos el deudor principal y todos los responsables solidarios y subsidiarios se declarará el crédito como incobrable.

2. Prozeduraren legezkotasunari zor zaion errespetua eta administrazioaren eraginkortasuna uztartzeko helburuarekin, kreditu kobraezinak proposatu aurretik, egiaztatu beharko diren baldintzak eta eskakizunak ezartzen dira.

3. Ziurtagiriak desberdinak izango dira zorraren zenbatekoaren eta ezaugarrien arabera, ondoko kasuak bereiziz:

50 €-tik beherako zorren espedienteak

- Aurretiaz premiamenduko probidentzia jakinaraztea, zordunarekin nola edo hala loturik dauden helbide guztietara eramanez eta iragarkia BAOnrgitaratuz.
- Erakunde finantzarioetan fondoen bahitura saialdia, emaitza negatiboaz.

50 eta 500 € bitarteko zorren espedienteak

- Aurretiaz premiamenduko probidentzia jakinaraztea, zordunarekin nola edo hala loturik dauden helbide guztietara eramanez eta iragarkia BAon argitaratuz.
- Finantza erakundeetan fondoen bahitura saialdia, emaitza negatiboaz.
- Soldaten eta pentsioen bahitura saialdia, emaitza negatiboaz.

500 € eta 3000 € bitarteko zorren espedienteak

- Aurretiaz premiamenduko probidentzia jakinaraztea, zordunarekin nola edo hala loturik dauden helbide guztietara eramanez eta iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuz.
- Erakunde finantzarioetan fondoen bahitura saialdia, emaitza negatiboaz.
- Soldaten eta pentsioen bahitura saialdia, emaitza negatiboaz.
- Jabetza Erregistroetan edota bestelako erregistro publikoetan zordunaren izenean inskribatutako ondasunik ez dagoela egiaztatzea.

3.000 €-tik gorako zorren espedienteak

2. Con la finalidad de conjugar el respeto al principio de legalidad procedimental con el de eficacia administrativa, se establecen los requisitos y condiciones que habrán de verificarse con carácter previo a la propuesta de créditos incobrables.

3. La documentación justificativa será diferente en función de los importes y características de la deuda, distinguiéndose los siguientes supuestos:

Expedientes con importe de deuda no superior a 50€:

- Notificación previa de la providencia de apremio, en todos los domicilios que figuren vinculados de alguna forma al deudor y publicación de anuncio en el BOB
- Intento de embargo de fondos en entidades financieras con resultado negativo.

Expedientes por un importe de deuda de más 50 a 500€:

- Notificación previa de la providencia de apremio, en todos los domicilios que figuren vinculados de alguna forma al deudor y publicación de anuncio en el BOB
- Intento de embargo de fondos en entidades financieras con resultado negativo.
- Intento de embargo de sueldos y salarios y pensiones con resultado negativo.

Expedientes por un importe de deuda de más de 500€ a 3000€:

- Notificación previa de la providencia de apremio, en todos los domicilios que figuren vinculados de alguna forma al deudor y publicación de anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia.
- Intento de embargo de fondos en entidades financieras con resultado negativo.
- Intento de embargo de sueldos y salarios y pensiones con resultado negativo.
- Acreditar que no existe bienes inscritos a nombre del deudor, en el Registro de la Propiedad o cualquier otro registro público.

Expedientes por un importe de deuda superior a 3.000€:

- Aurretiaz premiamenduko probidentzia jakinaraztea, zordunarekin nola edo hala loturik dauden helbide guztietara eramanez eta iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuz.
- Finantza erakundeetan fondoen bahitura saialdia, emaitza negatiboaz.
- Soldaten eta pentsioen bahitura saialdia, emaitza negatiboaz.
- Jabetza Erregistroetan edota bestelako erregistro publikoetan zordunaren izenean inskribatutako ondasunik ez dagoela egiaztatzea.
- Kobratzeko modurik gabe, zorra betearazpenean lau urtez izan dela jasotzen duen txostena.

- Notificación previa de la providencia de apremio, en todos los domicilios que figuren vinculados de alguna forma al deudor y publicación de anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia.
- Intento de embargo de fondos en entidades financieras con resultado negativo.
- Intento de embargo de sueldos y salarios y pensiones con resultado negativo.
- Acreditar que no existe bienes inscritos a nombre del deudor, en el Registro de la Propiedad o cualquier otro registro público
- Informe confirmando haber mantenido deuda en Ejecutiva durante un año, sin posibilidad de cobro.

**4.-PRESKRIPZIOA ETA IRAUNGIPENA**

17. artikulua.- Printzipio orokorrak

1. Udal honek zerga-zorra zehazteko ahalak preskripzioa eta iraungipena du. Preskripzioa eta iraungipena aldi berean doaz. Horregatik, euretako edozein gertatuz gero, ezin izango da dministrazio-ahala egikaritu, dagokion kitapenaren bidez zerga-zorra zehazteko.

2. Kitatu eta autokitatutako zorrak ordaintzea eskatzeko Administrazioak duen ahalak, eta zuzenbide publikoko diru-sarrerak, diru-sarrera bidegabeak itzultzea eta bermeen kostuaren errenboltsoa arauten dituen araudítik eratorritako diru-itzulketak lortzeak, preskripzioa dute.

3. Preskripzioak eta iraungipenak zorra kentzen dute eta ofizioz aplikatzen dira, baita ordaindu den kasuetan ere.

18. artikulua.- Preskripzioa

1. Aurreko artikuluko bat eta bi puntuetan aurreikusitako administrazio ahalak egikaritzea lau urtera preskribatzen du. Zuzenbide publikoko beste sarrera batzuetarako, dagokion araudia beteko da.

2. Preskripzioa zenbatu, eten eta gainerako ondorioetarako, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta berori garatzeko xedapenetan

**4.-PRESCRIPCION Y CADUCIDAD**

Artículo 17. Principios generales

1. La potestad de este Ayuntamiento para determinar la deuda tributaria es objeto de prescripción y caducidad. La prescripción y la caducidad operarán simultáneamente por lo que, una vez se produzca cualquiera de ellas, no podrá llevarse a efecto el ejercicio de la potestad administrativa para determinar la deuda tributaria mediante la oportuna liquidación.

2. La potestad administrativa de la Administración para exigir el pago de las deudas liquidadas y autoliquidadas y el derecho de los obligados a solicitar y obtener devoluciones derivadas de la normativa reguladora de los ingresos de derecho público, las devoluciones de ingresos indebidos y el reembolso del coste de las garantías son objeto de prescripción.

3. La prescripción y la caducidad extinguen la deuda y se aplican de oficio, incluso en los casos en que se haya efectuado el pago.

Artículo 18. Prescripción

1. El ejercicio de las potestades administrativas previstas en los apartados uno y dos del artículo anterior prescriben a los cuatro años en el caso de deudas tributarias. Para otros ingresos de derecho público, se estará a la normativa correspondiente.

2. A los efectos del cómputo, interrupción y demás efectos de la prescripción se estará a lo previsto en la Norma Foral General Tributaria y sus

aurreikusitakoa betearaziko da.

disposiciones de desarrollo

19. artikulua.- Iraungipena

1. Ordenantza honen 16. artikuluko lehenengo puntuan aurreikusitako administrazioko ahalmenaren egikaritzak sei urteren buruan iraungitzen du.
2. Iraungipena zenbatu, eten eta gainerako ondorioetarako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta berori garatzeko xedapenetan aurreikusitakoa betearaziko da.

Artículo 19. Caducidad

1. El ejercicio de la potestad administrativa prevista en el apartado uno del artículo 16 de esta ordenanza caduca a los seis años.

2. A los efectos del cómputo, suspensión y demás efectos de la caducidad, se estará a lo previsto en la Norma Foral General Tributaria y sus disposiciones de desarrollo

**III.- PREMIAMENDUKO PROZEDURA**

**III.- PROCEDIMIENTO DE APREMIO**

20. artikulua. Premiamenduzko prozedura

1. Zuzenbide publikoko zerga-zorrak edo gainerako diru-sarrerak borondatezko epealdian ordaintzeko epea amaituta, oso-osorik ordainduta ez baleude, ordaintzeke dauden zorren epealdi betearazlea hasiko da.
2. Epealdi betearazlea hasiz gero, % 5eko gainordaina eta berandutzako interesak zehaztea ekarriko luke; hortik kanpo geratuko litzateke premiamenduko probidentzia eman denetik zorra ordaintzeko ematen den epea amaitu arte iragandako epealdia.
3. Ordaintzeko epea amaituta, % 20ko premiamenduko gainordaina eskatuko da, eta borondatezko epealdia amaitzen denetik sortarazitako kuotaren gaineko interesak ere bai.
4. Zergak premiamendu-prozeduraren bidez kobratzeko epea hilabetekoa izango da, jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Artículo 20. Procedimiento de Apremio

1. Trascurrido el plazo para el pago en periodo voluntario de las deudas tributarias o demás ingresos de derecho público sin que estas se efectúen en su totalidad, dará comienzo el periodo ejecutivo por las deudas pendientes.
2. El inicio del periodo ejecutivo supone un recargo del 5% y la determinación de intereses de demora, salvo por el periodo transcurrido desde que se dicta la providencia de apremio y la fecha en que finalice el plazo que se concede para hacer frente al pago de la deuda.
3. Trascurrido el plazo de pago, se exigirá el recargo de apremio, que será del 20%, así como los intereses devengados desde la finalización del periodo voluntario, sobre la cuota.
4. El plazo para el cobro de las deudas en el procedimiento de apremio será de un mes contado desde el día siguiente a la recepción de la notificación.

**IV.- BERRIKUSTEA ADMINISTRAZIO BIDETIK**

**IV.- REVISION EN VÍA ADMINISTRATIVA**

21. artikulua. Berraztertzeko errekurtsoa

1. Zuzenbide publikoko tokiko zergak eta gainerako diru-sarrerak aplikatu eta eraginkortasuna izateko egintzen aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu arren, horrek ez du aurkaratutako egintza eta dagozkion legezko ondorioak egikaritzea eteten, kuoten diru-bilketa edo kitatutako eskubideak, interesak, gainordainak eta zehapenak barne. Zerga zehapenak ezartzeko egintzak etengo dira errekurtsoa aurkezten den unean.

Artículo 21. Recurso de Reposición

1. La interposición del recurso de reposición contra los actos sobre aplicación y efectividad de los tributos locales y restantes ingresos de derecho público, no suspenderá la ejecución del acto impugnado, con las consecuencias legales consiguientes, incluidas la recaudación de cuotas o derechos liquidados, intereses, recargos y sanciones. Los actos de imposición de sanciones tributarias quedarán automáticamente suspendidos con la interposición del recurso.

2. Hala ere, berraztertzeko errekurtsoa epean eta behar bezala aurkeztu bada, automatikoki eta bermeak aurkeztu beharrik gabe etengo da aurkaratutako egintza egikaritzea, zerga-zorra borondatezko epealdian dagoenean edo premiamenduzko probidentziaren aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu bada. Era berean, egikaritzea etengo da beti ere, bi kasuetan, ordaintzeko borondatezko epealdiaren amaieran ordaintzeke dagoen zorra 6.000,00 € koa edo gutxiagokoa baldin bada.

3. Aurreko puntuan adierazitakoak baino zenbateko handiagoetarako, interesdunak errekurtsoa aurkezteko epe barruan, aurkaratutako egintzaren egikaritza etetea eska dezake. Baina horretarako errekurtsogileak aukeratutako ondoko bermeekin batera aurkeztu beharko du:

- Dirua edo balio publikoak gordailutzea.
- Kreditu-erakundeek edo elkarren arteko berme-sozietateek edo kauzio aseguruaren egiaztagiri bidez emandako izaera solidarioko abala edo fidantza.

4. Errekurtsoa ebazteko organo eskudunak prozedura berme prestaziorik gabe etetea erabakiko du, alegia, ordenantza honetan automatikoki eteteko ezarritako muga gainditzeagatik bermea derrigorrezkoa denean, hau da ondoko kasuetan:

- Akats aritmetikoa, materiala edo egitatezkoa izan litekeela ikusten denean.
- Ebazteko organo eskudunaren iritziz, errekurtsogileak alegatu ondoren, prestazioa ezinezkoa zaiola justifikatzen duenean.

5. Etenaldi hori emateak, irauten duen denbora guztiagatiko luzamendu interesak ordaindu beharra erakarriko du, eta berraztertzeko errekurtsoa denean besterik ez du izango eraginik.

6. Berraztertzeko errekurtsoa, aldizkakoak ez diren zorren kasuan, hilabeteko epean aurkeztu beharko da, egintza beren beregi jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita; bestela, zergadun nahiz ordaintzeko beharra dutenen errolda edo matriculen erakustaldi publikaoren epea amaitu eta biharamuentik aurrera.

2. No obstante lo anterior, la interposición en tiempo y forma del recurso de reposición suspenderá de forma automática y sin necesidad de aportar garantías la ejecución del acto impugnado, cuando la deuda tributaria estuviere en período voluntario de pago o se hubiese interpuesto el recurso de reposición contra la providencia de apremio, y siempre que, en ambos casos, la cuantía de la deuda pendiente a fin de periodo voluntario de pago fuese igual o inferior a 6.000€.

3. Para cuantías superiores a las indicadas en el punto anterior, el interesado podrá solicitar, dentro del plazo para interponer el recurso, la suspensión de la ejecución del acto impugnado, a cuyo efecto será indispensable acompañar garantías, que son las siguientes, a elección del recurrente :

- Deposito de dinero o valores públicos.
- Aval o fianza de carácter solidario prestado por entidades de crédito o sociedad de garantía recíproca o certificado de seguro de caución.

4. El órgano competente para resolver el recurso acordará la suspensión del procedimiento sin prestación de garantía alguna cuando ésta resulte obligatoria por superar el límite establecido en esta ordenanza para la suspensión automática, en los siguientes casos:

- Cuando se aprecie que se ha podido incurrir en error aritmético, material o de hecho.
- Cuando el recurrente alegue y justifique, a criterio del órgano competente para resolver, la imposibilidad de prestarla.

5. La concesión de la suspensión llevará siempre aparejada la obligación de satisfacer intereses de demora por todo el tiempo de aquella y sólo producirá efectos en el recurso de reposición

6. El recurso de reposición se interpondrá dentro del plazo de un mes contado desde el día siguiente al de la notificación expresa del acto cuya revisión se solicita o al de finalización del período de exposición pública de los correspondientes padrones o matrículas de contribuyentes u obligados al pago.

**V.- IKUSKATZEKO PROZEDURA**

22. artikulua.- Zerga ikuskapena

1. Zerga-ikuskapena garatuko da Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorrean, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga-zehapenen Arautegia onesten dituen Foru Aldundiaren 99/2005 Foru Dekretuan eta gainerako xedapen osagarrietan ezarritakoaren arabera.

**VI.- ZEHATZEKO ARAUBIDEA**

23. artikulua.- Zehatzeko ahalmena

1. Zehatzeko prozedura garatuko da, Bizkaiko Lurraldeko Historikoaren Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorrean, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga-zehapenen Arautegia onesten dituen Foru Aldundiaren 100/2005 Foru Dekretuan eta gainerako xedapen osagarrietan ezarritakoaren arabera.

**VII.- AZKEN XEDAPENA. BAKARRA**

Xedapen Bakarra. Indarrean sartzea

Ordenantza hau 2008eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

**V.- PROCEDIMIENTO DE INSPECCIÓN**

Artículo 22. Inspección Tributaria

1. La inspección tributaria se desarrollará de conformidad con lo establecido en la Norma Foral General Tributaria del THB 2/2005 y en el DF 99/ 2005 por el que se aprueba el Reglamento de Inspección Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia y demás disposiciones complementarias.

**VI.-REGIMEN SANCIONADOR**

Artículo 24. Potestad Sancionadora

1. El procedimiento sancionador se desarrollará conforme a lo establecido en la Norma Foral General tributaria del THB 2/2005 y en el DF 100/2005 por el que se aprueba el Reglamento sancionador Tributario del Territorio Histórico de Bizkaia y demás disposiciones complementarias.

**VII.- DISPOSICIONES FINALES**

Disposición Final Única. Entrada en vigor

La presente Ordenanza entrará en vigor al día 1 de enero de 2008.